

GARA

2015/3/8

**MAILAZ MAILA,
BERDINTASUN BIDEAN**



Emakume eta Gizonen ARTEKO

ESKUBIDE BERDINTASUNA

GURE ARDURA...

eta zurea?



La igualdad entre Mujeres y Hombres
es nuestra responsabilidad ¿y la tuya?

«Politikan duten presentzia handitu da, baina lidergoak ahulak dira»

MILA AMURRIO ■ EHUko Soziologia Saileko irakaslea

SOZIOLOGIAN DOKTOREA, EHU-KO GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAN IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA DA. IKERKETA UGARI EGIN DITU, BESTEAK BESTE, GIZON ETA EMAKUMEK ARLO POLITIKOAN DUTEN LEKUA AZTERTZEKO. AURTENGOA HAUTESKUNDE URTEA IZAKI, ALOR HORRETAN IZAN DIREN ALDAKETEZ ETA GAUR EGUN ORAINDIK BERE HORRETAN DIRAUTEN ALDEEZ HAUSNARTU DU.

Maidier EIZMENDI

Txoli Mateos eta Ane Larrinaga Soziologia Saileko kideekin batera, emakumeek botere politikoaren baitan duten egoera aztertu du. Zerbaitan bederen aurrerapenak izan direla ukaezina dela nabarmendu du; baina, bere esanetan, emakumei arlo politikoan oraindik «ez zaie botere legitimorik aitortzen». Oztupoak ere aipatu ditu, gizon edo emakumeen artean zaintza lanak duen pisua, esaterako.

Benetako aldaketak gerta daitezen bidea marrazten saiatu da. «Alderdien eta erakundeen arteko aliantzak behar-beharrezkoak dira, gainerakoan ematen diren pausoak ahulak dira eta», ondorioztatu du.

Hauteskunde urtea da aurtengoa. Emakumeen ordezkari politikoari dagokionez, zein egoeratan abiatzen da?

Presentziari dagokionez, aurrera goaz eta hori ukaezina da. Modu horretan, agian, emakumeen inguruko gaiak eta haien interesak gehiago agertzea suposatu du; baina, esan beharra dago, botereguneetan ez dutela presentzia handitzea lortu. Emakumeek dituzten lidergoak ez dira sendoak eta alor horretan egin dituzten aurrerapausoak gainera, lan gehigarri bat egin osten lortu dituzte. Botereguneak oraindik oso maskulinoak dira eta emakumeek ez dute autoritate legitimorik. Ez zaie horrelakorik aitortzen eta jardunean ari diren politikariek hori pertzibitzen dute; hala azaldu dute egin ditugun ikerketa desberdinetan. Ahalduz gero, pentsa genezake ere-



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

mu sozialean nagusi den genero harremanetan eragin dezaketela, baina alor horretan ez da uste bezain eragin handirik lortu.

Kopuruan ez ezik, emakumeen ibilbide politikoei ere errepertatu behar zaie. Denboran zenbat luzatzen dira? Zenbat denbora ematen dute aktibo? Eredu maskulinoak da oso eta horrek eragina du. Ikerketa aurrerfeministetan esaten zen emakumei ez zitzaizela politika interesatzen. Feminismoak esan zuen: zer dauka politika

AUTORITATEA

«Botereguneak oraindik oso eremu maskulinoak dira eta emakumeek ez dute autoritate legitimorik. Ez zaie aitortzen eta jardunean ari direnek pertzibitzen dute»

eredu honek emakumeen interesea ez dena? Boterea eskuratzeko, lehian aritzea, anbizioa... emakumeen eta gizonen artean bizi diren ezberdintasunak dauden ezaugarriak dira.

Kopuruetan aldaketak aipatu dituzu, baina legeen ondorio dira kasu askotan.

Bai, eta desberdintasunak dakartzaten betiko balioak aldatzea oinarritzokoa da. Izan ere, emakume politikariek nola baliatzen dute boterea? Beste modu batera? Maiz, halaberrez

emakumeen interesak kontuan hartzen dituen eredu hori albo batera utzita aritu behar izaten dute; ez dira zentzu feministan batean eraldaketa sozialaren agente bilakatu.

Araua ez da nahikoa, noski.

Onartu behar da legeari eskertu lortu dela presentzia handitzea. Legez arautua dagoenez, alderdiek euren burua egoera horretan kokatu behar izan dute. Sasoi batean eztabaidatu zen legearen beharraz. Merituaren arabera neurketa aipatu zen, baina emakumeen eta hainbat gizonen abiapuntua ez zen berdina. Egungo arauak presentzia handiago bermatu beharko luketela? Agian, bai; baina, agian, ez genuke behar errotik egin behar den aldaketa horretan urrats gehiago egin izan bagenitu. Izan ere, benetan bermatu nahi badugu emakume politikariek gizonen artean adinako botere eta legitimitatea izatea, beste gogoeta bat egin behar da eta neurri zehatzak hartu. Esaterako, erakundeetan beste ohitura batzuk hartu behar dira ordutegiak aztertzeke, zaintzari erreparatzeko...

Zaintza muga gisa aipatzen duzu behin eta berriz. Zuek egin dituzten ikerketetan zein neurritan ikusi duzue oztopo dela?

Zaintza zailtasun handia da oraindik ere. Eredu klasiko liberala nagusitzen da, bi eremu bereizten dituena: pribatua eta publikoa. Arlo pribatuan emakumeak daude kokatuta oraindik ere. Orokorrean, politikan aritu behar duen emakumeak hautu bat egin behar izaten du, gogoeta eta negoziatzea. Gizo-

FEMINISMOAZ DANOK AURRERA GOAZ
MARTXOAK 8

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

emakume txokoa
politika eta erakundeak

8 Meñakako Udala
Elias Agirre Plaza 1
© 94 674 21 01

MARTXOAK

nezkoek ez dute hautu horretan halako presiorik. Emakumeak ordezkari politiko gisa aritzeari baiezkoa emateko, babesa izan behar du maila guztietan: pertsonalean, familiarean... Zaintza lanetan aurrerapausoak izan dira, baina xumeak dira. Emakumeek eta gizonek zaintza eta etxeko lanak egiten ematen duten denbora tartean alde handia dago eta horrek ondorioak ditu, noski. Gogoratzen dut ikerketa batean zinegotziek aipatzen zutelako, bilerak amaitu ostean, emakumezkoak etxera joaten ziren bitartean gizonezko kideak elkarrekin geratzen zirela. Beste sare bat osatzen zuten eta bertan erabakiak hartzen jarraitzen zuten; emakumeak ez zeuden hor. Zaintza benetan aintzat hartzeko, ohi-tura horiek aldatu egin behar dira eta pribilegiatuek, noski, lehen pausoa eman beharko lukete. Politikan aritzen diren gizonek ez dute ulertzen jardun hori goitik behera eraldatu beharko litzatekeela guztiek parte hartu ahal izateko eta emakumeek botereguneetan duten lekua eta lidergoa sendotzeko.

Zeintzuk dira pausoak?

Alderdien eta erakundeen arteko aliantzak behar-beharrezkoak dira, gainerakoan ematen diren pausoak ahulak dira eta.

Era berean, «kristalezko sabaia» deitu izan zaion hori

gainditzeko beharrezkoa litzateke pribilegiadunak, gizonezkoak, diskurtso hutsean ez geratzea, praktikara igarotzea eta ekintza eta aurrerapauso praktikakoak ematea. Baina politikan ari diren gizonek ez dute gogoeta hori egin, ez zaielako komeni kasu askotan; edo ezin izan dutenean mesfidati agertu izan dira.

Hauteskunde deialdi ugari daude eta zerrendak osatzen ari dira.

Interes handiarekin jarraitzen dugu taldekide guztiok zerrenden diseinua eta hauteskunde osteko erabakiak. Legeak kuota ezartzen dituenez, presentzia bermatuko da, baina gure galdera da, presentzia horrekin zer lortu nahi da? Emakumeak izanda, agendan gaiak sartzea lortzen dugu, baina emakume horiek non geratzen dira? Izango dute gaitasunik gauzak eraldatzeko bai eremu instituzional zehatz horretan, bai gizarte mailan? Hori egiteko aliantzak sortzeko eta diseinatzeko gaitasuna erakutsiko dute? Galdera asko sortzen zaizkigu. Nik uste dut belau-naldi berri bat sartzen ari dela erakundeetan eta horietako askok behintzat diskurtso feminista ezagutzen dutela. Diskurtsoa praktikara eramane behar da ondoren eta gizonezko kideekin partekatuta. Hor erresistentzia handiak daude erakun-

ZAINZA

«Politikan aritu diren emakumeak hautu bat egin behar izaten du, gogoeta eta negoziazioa. Gizonek ez dute hautu horretan halako presiorik»

ALIANZAK

«Alderdien eta erakundeen arteko aliantzak behar beharrezkoak dira, gainerakoan ematen diren pausoak ahulak dira eta»

de eta alderdi guztietan. Egin ditugun ikerketetan ikusi dugu lerro ideologiko kontserbadoreetan erresistentzia handi-agoak sumatzen direla; baina aurrerakoiagoak diren alderdietan, diskurtsoa sendotuago badago ere, praktika handirik ez dugu ikusi.

Eredu mailan emakumezko ordezkariak izateak eragin du?

Erreferentziak badira eta emakumeak ikusten ditugu postu garrantzitsuetan, eta hori garrantzitsua da. Esanguratsua da emakumeak horrelako kokapen estrategikoetan ikustea. Jasotzen dugun hezkuntza, sozializazioa, desberdina da eta horrek zenbait alorretan aritzeko autoestimua lantzen ez du laguntzen. Akademian bertan hori ikusten dugu, neskek eta mutilak pareko dira, baina hitza hartzen lehenak mutilak dira ia beti. Proiekzio publikoa duten eremuetan oraindik desberdin jokatzen dugu eta balorazioa ere desberdina da. Emakumezko politikariren gaineko balorazioak aztertzea komeni da: haren jokatze modua ez zaigu gustatzen, besteak ez du benetako oposizioa egiten, hura maskulinoegia da... Boterea gizonen arabera diseinatu dago, gizontasun eredu baten baitan eta horien arabera baloratzen da emakume ordezkarien jarduna.

Pausoak ematen jarraitzea guztiz beharrezkoa da.

Bai. Ulertu behar dugu aldaketok epe ertainean gauzatzen direla. Gipuzkoako Aldundian, esaterako, ambizio handiko plana egin dute, baina denbora gehiago behar da. Lau urtetan ez dago aldaketa kulturalik egiterik. Horretarako denbora behar da eta, noski, emakumeak hor egotea. Gizonezko kideei, berriz, jarrerak aldatzea, irekitasun handiagoa erakustea eta diskurtsoetik praktikara jaits daitezela eskatu behar diegu.

Gizartean emakumeen presentziak duen garrantzia nolabait barneratu da. Greziako Gobernuaren argazkiak erreakzio zenbait eragiteko adinako neurrian bai behintzat.

Argazkia guztioi iruditu zaigu zaharkitua. Herrialdeen garapena neurtzeko emakumeen partaidetza eta lan merkatuan duen jarduera tasa adierazleak dira, esaterako. Argazkia gogorra iruditu zaigu eta hori ona da neurri batean, arrotz ikusi dugulako. Horrek erakusten du neurri batean zein ahulak diren ematen ditugun aurrerapausoak. Oraindik egoera horretan gaude; Greziak bizi duen larrialdi egoera batean eta larrialdi gobernu batean posible litzateke gizonezkoak baino ez agertzea. Onartu behar da, hala ere, Grezian berdintasunari dagokionez, beste datu batzuk daudela.

HERRI BORONDATEAREN GARAIAN EMAKUMEOK

M8

EMAKUMEON
NAZIOARTEKO EGUNA

HITZA ETA ERABAKIA

ehbildu

UN TRABAJO NO RECONOCIDO Y RELEGADO A UN SEGUNDO PLANO

La feminización de los sectores más precarios y peor remunerados, la parcialidad del trabajo para poder cumplir con el cuidado de la familia o la inexistencia de una pensión derivada del trabajo doméstico son parte de la discriminación que padecen las mujeres. Terminar con esta desigualdad requiere eliminar la distinción basada en criterios de género.

Iraia OIARZABAL

En una sociedad que se dice altamente cualificada en lo que a formación se refiere, las asignaturas pendientes en materia de igualdad son numerosas. Muchas de ellas en el terreno laboral y académico, donde las mujeres se sitúan varios peldaños por debajo de los hombres. Son varios los datos que sostienen esta afirmación y mucho se ha hablado de ellos en las últimas semanas, siendo quizá la más sonora la reivindicación de la igualdad en materia salarial realizada en plena gala de entrega de los Oscar.

Una realidad ampliamente constatada desde el ámbito laboral hasta el seno familiar, pues la desigualdad se va nutriendo desde los primeros años de vida de las mujeres formando, tristemente, parte de su vida a lo largo de su recorrido profesional y personal. Un problema estructural que requiere soluciones estructurales y, sobre todo, un verdadero cambio de mentalidad. El papel casi exclusivo de la mujer en funciones de cuidado y labores del hogar son causa y efecto de estas desigualdades, aunque merece una lectura más compleja.

Con todo, los datos recogidos por el Observatorio Sociológico Gaindegia en el estudio sobre la situación del mercado laboral en Euskal Herria publicado en 2014 muestran que el 56,3% de los contratos de mujeres en 2013 eran temporales y que las mujeres representaban el 80,9% del trabajo parcial, un 7,2% por encima de la media de la Unión Europea.



Para analizar la situación que se deriva de estos datos, el coordinador de Gaindegia, Imanol Esnaola, señala en primer lugar que existe una clara diferencia entre los territorios de Iparralde y Hegoalde, debido a que forman parte de «dos culturas políticas que distan mucho en lo que a igualdad se refiere». Apunta que en el caso de Ipar Euskal Herria la lucha feminista y la consiguiente autonomía económica de la mujer ha propiciado que las condiciones laborales respondan a parámetros más igualitarios.

En Hego Euskal Herria, las mujeres siguen estando sujetas a un modelo de subordinación donde el reparto de las activida-

Durango Gurutzia
ikastolan Lomce
desobeditzeko lantsaioa
egin zuten, hainbat
eragilek deituta, joan den
abenduan.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

des claramente diferenciado por sexos las condena a labores de cuidado en el hogar y a empleos precarios y peor remunerados. Según relata Esnaola, las mujeres recurren, en una mayor proporción, a trabajos ligados al sector servicios, mientras que los hombres lo hacen en labores relacionadas con la producción industrial y a cargos dirigidos a la toma de decisiones. De ahí la diferencia salarial entre hombres y mujeres.

Determinados trabajos en el sector sanitario, muy ligados al cuidado, empleos en oficinas públicas y en el sector servicios (comercio y hostelería) en puestos no cualificados son los que cuentan con una mayor

presencia de mujeres. Por tanto, si se tiene en cuenta que la mayoría de contratos a tiempo parcial son ocupados por mujeres y en la mayoría de casos en ámbitos relacionados con la asistencia y con un bajo valor añadido, el resultado se materializa en un salario medio considerablemente más bajo.

UN NUEVO GOLPE

Como ha ocurrido en el ámbito social y laboral en general, la crisis económica y las reformas impuestas durante la misma han mermado más aún la situación de las mujeres. La flexibilización de las condiciones laborales y la facilidad del despido se han hecho notar en todos los sectores,



Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARTXOAK 8

MARIJIRA

Ordua: 13:00

Lekua: Plaza Berria




aunque han golpeado especialmente a ámbitos donde la precariedad ya era notable antes de la crisis.

De hecho, Esnaola advierte de que en la situación anterior a la crisis la vulnerabilidad de las mujeres en el ámbito laboral permanecía oculta, ya que aunque en muchos sectores recibían salarios bajos y las condiciones laborales eran precarias, completaban sus ingresos con el salario de los hombres. El hecho de que el desempleo haya abarcado a un amplio sector de la sociedad, entre ellos muchos hombres y padres de familia, ha desatado el drama que venían viviendo miles de mujeres. Mujeres cuyo salario, en muchos casos, se ha convertido ahora en el único ingreso y, por lo tanto, sustento de la unidad familiar.

Una carga a la que deben sumar el hecho de que siguen soportando el peso del trabajo del hogar. Condición que, a su vez, está estrechamente ligada a la mayoritaria presencia de la mujer en el contrato a tiempo parcial. Tal y como explica Esnaola, la mayoría de las encuestas recoge que el grueso del colectivo femenino trabajaría más pero no lo hace porque no se le da opción a ello. Asimismo, otra gran parte no puede trabajar más horas porque tiene responsabilidades en el hogar. Es decir, dedican «inevitablemente» una parte de su jornada laboral a

cuidar de la familia y el hogar y, con el tiempo restante realizan trabajos asalariados.

«Que el cuidado de la familia es un impedimento es un hecho y ello nos lleva a varias preguntas: ¿Qué leyes tenemos en torno al cuidado? ¿De qué recursos disponemos para ello? Así como en otras regiones esta cuestión está superada, en nuestro también debería estarlo», apunta. A su juicio, este aspecto es una importante razón para la soberanía. «Este país produce los recursos suficientes para desarrollar otro tipo de políticas en torno al cuidado y sin tener que sacrificar la carrera profesional de nadie, pero esos recursos no aparecen por ningún lado sino que vienen del colchón familiar. Desde un punto de vista de la soberanía sí que deberíamos reivindicar que necesitamos todos nuestros recursos para desarrollar nuestra cohesión social», apostilla.

LA EDUCACIÓN EN EL ORIGEN

Por ello y teniendo claro el objetivo que como sociedad debemos perseguir, traza algunas de las líneas a seguir para su consecución. La primera de ellas, la superación de la división de género de la sociedad. Un reto en el que la formación y la educación forman un papel fundamental, desde el seno familiar hasta el ámbito educativo. «En nuestro caso está claro que si



observamos a los países del norte de Europa debemos pensar cómo superar desde las escuelas ese camino socio-laboral que nos viene marcado y que no solo es largo, sino también sexista».

Además, considera que hay mucho trabajo por hacer en el reconocimiento de las labores de cuidado que mayoritariamente vienen realizando las mujeres. Un reconocimiento que ha de venir también desde el ámbito económico para que, entre otras cosas, ese colectivo tenga derecho a una pensión.

Cuestiones de mínimos cuyo desarrollo no presenta ningún impedimento pero que sí requieren de concienciación y determinación para llevarlas a cabo.

«Debemos hacer un ejercicio profundo imaginando nuestro futuro. Tenemos claro cómo no queremos que sea, pero eso no es suficiente. Debemos imaginar lo más concretamente posible cómo queremos que sea, porque ello nos dará la opción de entendernos y de decidir. No puede ser que este pueblo no tenga un proyecto para cuidar a sus integrantes», sostiene. Para ello, remarca que no se puede pensar solo en términos empresariales, sino en términos sociales que permitan construir una sociedad capaz de generar riqueza, dirigirse a sí misma y cuidar a sus miembros.

Presencia de la mujer en el mercado laboral



Fuente: GAINDEGIA

CONTRA LA OFENSIVA PATRIARCAL Y CAPITALISTA DESOBEDIENTZIA FEMINISTA!

Alternatiba

AJANGIZKO UDALA

2015 MARTXOAK 8

EMAKUMEAREN EGUNA

12:00 INES BENGOA KONTU KONTALARIA "BERDINTASUNA MAITE DUGULAKO"

13:00 DANZA ERAKUSKETA

13:30 HERRIKO GAZTETXOEN ANTOLATUTAKO EKITALDIA

14:00 ARGAZKIA

14:30 BAZKARIA

"Haragi-bertsotako emakumea nautue, amodio-putzua, mindutako ahoa, nire zauria ordea trumoi biburtu nahi dut orain eta hemen, argi eta ozorri entsun dadin" Angela Figuera

Sotera

Cafeteria - Bar

tel. 94 612 92 67 Auda. de Libertad, 48. BARRAKALDO

TXIBERRI

ITURALDE 1934 GARENEAN

EDANTOKIA - FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON, 4 - URDULIZ - 94 676 07 15

xixili café

Martxoak 8 emakumeen nazioarteko eguna

Jado, 10. Erandio · 94 467 43 71

M8 martxoak 8 egunero

KUKUSOAK

ZAZPI BIDE TABERNA

WWW.KUKUSOAK.COM

BILBOKO ALDE ZAHARREAN, BARRENKALE BARRENA 18

BA AL ZENEKIEN GIPUZKOAKO
EMAKUMEZKOEN BATEZBESTEKO
ERRENTA 11.857€koa DELA ETA
GIZONEZKOENA 23.224€koa*?

berdintasuna?

Ulertuko duzu zergatik pentsatzen
dugun oraindik lan asko dugula egiteko.

Martxoak 8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

* Pobreziaren eta gizarte-desberdintasunen inkesta 2012.
Euskal urtekarri estatistikoa 2010.

 *Gipuzkoa*
BERRIA

berdintasuna**
egiteko asko
www.berdintasuna.net

Amalur ARTOLA

Emakumeek zinema egin izan dute, egiten ari dira eta, etorkizunean ere, egin egingo dute. Hori argi du EHuko irakasle eta zinemagintzan aditu Iratxe Fresnedak. Beste kontu bat egiten duten lanak gizartearen duen ikusgarritasuna da. «Zinemagintzaren munduan era batera edo bestera gabiltzanok, ikusi edo ezagutzen ditugu bertan lan egin edo mugitzen diren emakumeak. Beste kontu bat gizartea da. Eta harago, zinemagintza komertziala. Hor emakume gutxi batzuek dute ikusgarri bilakatzeko aukera», ziurtatu du Fresnedak.

Hausnarketa horren eskutik nazioarteko zinemaldietan emakumeek duten lekua ikeretzen hasi zen orain urte batzuk, «eta datu garrantzitsu bat topatu genuen: Europako FIAPP zinemaldien historian zehar (Venezia, Berlin, Cannes, Donostia...) ez da emakume zuzendaririk egon». Begirada etxera ekarrita, egoera ez da oso bestelakoa. Oztopoak oztopo, emakumeek zinema egiten dutela dio, baina ez da egiten duten lana ikusarazten. Horri helduta, Fresnedak Euskal Herriko emakume zinemagileen ibilbidearen gaineko ikerketa edo mapa egin du, Euskadiko Filmategiaren eskutik.

«Ikerketaren helburua hemen izan diren eta egun diren emakumeen lana ikusaraztea izan da. Horretarako, horien ibilbideen laburpena egiteko eskatu zidan Filmategiak. Denbora gutxi izan nuen baina, hala ere, egin den produkzioaren gehiengo ikusi eta berrikusi nuen eta, zenbait kasutan, filmen azterketa ere egin nuen. Abiapuntua besterik ez da izan 'ikerketatxo' hau. Gehiagoren beharra dugu, katalogazioa, filmen azterketak, elkarriketak, eta abar. Horretan gabiltza», azaldu du.

Orain artean eskuratu dituen datuen arabera, lehen emakumezko zinemagilea Mirentxu Loiarde dela dio, 1978. urtean "Irrintzi" egin zuena. Hortik gaur egunera arte zinema produkzioan jardun diren 50 emakume inguru identifikatu ditu Fresnedak, eta denbora horretan emakumeen zinema produkzioa «asko» aldatu dela ziurtatu du: «Euskal Herrian bizi



Iratxe Fresnedak euskal emakume zinemagileen gaineko ikerketa abiatu du. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ZINEMAGINTZAN ERE EMAKUMEEN LANA IKUSARAZTEA DA GAKOIA

izan dugun gatazkaz harago doaz edukie dagokionez; formatu berrien bitartez, animazioaren adibidez, Euskal Herriko abangoardia direla esatera ausartzen naiz. Hori bai, esparru komertziala beste istorio bat da; Euskal Herrian emakume gutxi dute produkzio handiek behar duten dirua eskuratzeko aukera. Eta bai, egia da gizonezkoentzat ere ez dela erraza».

Hala ere, zinema egiteko eran «emakumeen begirada» existitzen ote den ez du argi. Berak «gizakiaren begiradaz» hitz egitea nahiago du. «Hori

bai, argi daukat zer den begirada patriarkala eta heteronormatiboa. Alex de la Iglasiaren 'Las brujas de Zugarramurdi' kasu», salatu du.

KRISTALEZKO SABAIA

Finantziarioa da, Fresnedaren iritziz, zinemagintzako buruhauste handienetako bat. Ekonomiari markatzen du esku artean den idearen garapena, «eta ekonomia esparru publikoan aurkitzen da. Esparru publikoan gizarte osoari dagozkion bizi baldintzapean markatzen dira eta hor, oraindik, emakumea ez

da gutziz burujabe edo parte-hartzaile aktiboa. Horretan gabiltza. Kristalezko eta porlaneko sabaia ez hor daukagu. Faktore ugari».

Baita zinemagintzan ere. Besteren artean, zinema kontsumoaren gainean Leire Iturtekek eta Casilda de Miguelek burututako ikerketa hizpide hartu eta haren ondorioak ekarri ditu gogora ikerketaileak: «Emakumearen zinemagintza amodiozko filmen zinemagintzat jotzen zela eta gizonezkoena akzioaren zinemagintzat. Oso jarrerara kontserbadorea gailendu

zen aukeratu zuten laginaren erantzunetan, generoaren identitateari dagokionez».

Ikusgarritasuna eskuratzeko zinema jaialdiak eta banaketa ere garrantzizkoak dira, eta, alor horietan, euskal zinemagintzak «indar gutxi» daukala uste du. «Erakunde publikoek babespen legediak egin beharko lituzkete, kuotak ezarri. Eta badakit hau neurri protekzionistatza jo daitekeela, baina ez dago beste era batean lehiazterik kanpotik etortzen diren banatzaileekin (sarritan aretoen jabe direnak)».

Euskal Herriko emakumezko zuzendariak identifikatzea lehen urratsa dela dio Fresnedak, hasi besterik ez dela egin eta ikerketa lerro honekin jarraitze-ko asmoa duela: «Hau zuhaitzaren sustraia besterik ez da».

EMAKUMEZKO ZINEMAGILEEN MAPA. «Abiapuntua besterik ez da izan 'ikerketatxo' hau. Gehiagoren beharra dugu, katalogazioa, filmen azterketak, elkarriketak, eta abar. Horretan gabiltza».

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

“Ez dago gure aitua zein den jakiterik, zutik jarri arte”
Emily Dickinson, poeta estatubatuarra

“Emakumea ez da jaiotzat emakume; gerora egin egiten da”
Simone de Beauvoir

martxoak 8 EMAKUMEEN nazioarteko eguna

Bilbao AYUNTAMIENTO

HIRIA GUREGANATUZ

Zer da DONOSTIAKO MAPA KRITIKOA?
Gure hiria eraso sexistarik gabekoa izan dadin, udal teknikari eta herritarren artean egin den hausnarketa kolektiboa.

Mapa honek izaera **dinamiko** du eta **etengabe** aldatzen ari da, eraso sexistaren arrazoiak ere antzak eta aldakorrek direlako. Horregatik, **etengabe** hausnarketa prozesua izatea du heburu, urteroko errebisatuko dena.

¿Nola identifikatu ditugu HIRIAN konpondu beharreko guneak?

Espazio publikoak soilik aztertu ditugu, jakin arren etxebizitzetan, tabernetan, lantokian, portaletan, bestelako espazio askotan ere eraso sexistak ematen direla. **Laguntza behar izan ezker**o, entzuma izateko, ikusia izateko, **habesa aurkitzeko zailtasunak** dituzten gune publikoak aztertu dira.

¿Zer egingo dugu HIRIA GUREGANATZEKO eta ERASO SEXISTARIK GABEKOA izateko?
Bi mailatan erantzungo zaio MAPA KRITIKOARI:
Hirigintza artotik. Hirigintza ordenantzen moldaketen bidez, pasabideak saihestuz, eta abar.
Hirien erabilerari eraginez. Eraso asko espazio publikoaren erabilerari lotuak ematen dira: maizago eman ohi dira jazarpenek inpunitatea dutenaren usteari lotuak ematen dira. Jarrera desagokiei aurre egiteko, kontzientziazio kanpainak, prestakuntza, mugikortasun baliabideen egokitzea, berdintasun planak eta autodefentsa feminista sustatuko dira.

ERASO SEXISTEN AURKA EGITEA DENON ARDURA DA

¿Qué es el MAPA CRÍTICO DE DONOSTIA?
Es un proceso de reflexión colectiva realizada entre personal técnico y ciudadanía, para fomentar una ciudad libre de agresiones sexistas.

El mapa es **dinámico y cambiante**, ya que las causas de las agresiones sexistas suelen ser diversas. Por eso, este es un **proceso continuo**, con revisiones anuales.

REAPROPIÁNDONOS DE LA CIUDAD

¿Cómo hemos identificado las zonas a intervenir de la ciudad?
Hemos analizado exclusivamente el espacio público, aunque también se dan en viviendas, bares, lugares de trabajo, portales y otro tipo de espacios.

Hemos analizado los espacios públicos donde es difícil ser vistas, escuchadas, o socorridas.

¿Qué haremos para reapropiarnos de la ciudad, para que sea una ciudad LIBRE de AGRESIONES SEXISTA?
Se actuará sobre el MAPA CRÍTICO a dos niveles:
Desde el urbanismo: modificando algunas ordenanzas urbanísticas, revisando el alumbrado urbano, poniendo la atención en la jardinería, evitando túneles y pasadizos, entre otros.

Incidiendo en el uso que se hace de la ciudad. Muchas de las agresiones van ligadas al uso que se hace del espacio público: se dan más de noche, en fiestas, ligadas a las actitudes sexistas y a la creencia de que las agresiones a las mujeres quedan impunes. Para hacer frente a estas actitudes inadecuadas, reforzaremos las campañas de sensibilización, la formación, la modificación de los servicios de movilidad, los planes de igualdad y la autodefensa feminista.

Para que sea una ciudad sin agresiones sexistas, ES RESPONSABILIDAD DE TODXS ACTUAR CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad